



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA

BIZKAIKO PSIKOLOGIA ELKARGO A

146-ZEN-(2015) LEAren proiektua

Sumarioa:

I. AURREKARIAK.....	2
II. BIZKAIKO PSIKOLOGIA ELKARGO OFIZIALA.....	4
III. FROGATUTAKO EGITATEAK.....	5
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	8
1. Psikologia Elkargoari aplikagarri zaion araudia	8
2. Tipikotasuna	9
3. Antijuridikotasuna	12
4. Erantzukizuna	14
A. Fede ona.....	15
B. Bidezko konfiantza.....	16
5. Kalifikazioa.....	17
6. Gai prozesalak.....	18
A. Zehapen-proposamena ez egitea	18
B. Ikustaldiaren eskaera.....	19
7. Zehapenaren zenbatekoa ezartzea	20
V. EBAZTEN DU	21

Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, batzordekidea

Idazkaria: Natividad Goñi Urriza andrea

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (hemendik aurrera, LEK), 2017ko apirilaren 11ko bilkuran (adierazitakoek parte hartuta), ebazpen hau eman du 146-SAN-(2015) BIZKAIKO PSIKOLOGIA ELKARGO A espedientean.



I. AURREKARIAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) erregistroan, 2015eko uztailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren ofizioa sartu zen. Ofizio horren bidez, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren (Elkargoa) estatutuen 3. artikulua aldaketari buruzko txostena eskatu zuen (1-30 bitarteko folioak). Elkargoak proposatu zuen aipatutako aldaketa.

Estatutuak aztertuta, elkargoko kideek txostenik eskatu ez zuten manu batean, 4.ean, emandako zerbitzuetan ordainsariak finkatzeko baremoak ezartzeari buruzkoa zela ikusi zen.

3. 2015eko irailaren 30ean, sumatutako jokabidea deskribatzen zuen ohar labur bat bidali zion LEAk Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzari (MLBN), dokumentazio lagungarri guztiarekin, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeko Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera¹. LEAk adierazi zuen eskumena zuela jokabideak aztertzeko.

2015eko urriaren 14an, MLBNren ofizio bat sartu zen LEAren erregistroan. Ofizio horretan, jasotako proposamenari jarraituz, LEA ere eskuduntzat hartu zen aipatutako egitateak aztertzeko. Gainera, zehapen-espeditente bat hasiz gero MLBNren Lehiaren Zuzendaritza alderdi interesdun gisa onartzeko eskatzen zuen.

4. Arau-haustearen arrazoizko zantzuak daudela iritzita, 2015eko urriaren 22an Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialari zehatzeko espeditentea hasia erabaki zen, Lehiaren Defentsarako Legearen (LDL) 1. artikulua ustezko urratzeagatik². Ebazpen horretan prozeduraren instruktore ere izendatu zuten, LDLaren 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Espeditenteko alderdi interesatutzat hartu ziren, halaber, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofiziala eta MLBNren Lehiaketaren Zuzendaritza (31-34 bitarteko folioak).

¹ 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzekoa (2002ko otsailaren 22ko BOE, 46. zk.).

² 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsarakoa, 2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk. Hauek aldatuta: 39/2010 Legea, abenduaren 22koa, BOE-A-2010-19703; 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, BOE-A-2011-4117, 3/2013 Legea, ekainaren 4koa, BOE-A-2013-5940. Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>



5. 2015eko azaroaren 6an, Elkargoko Gobernu Batzarreko dekanoaren idatzia sartu zen LEAren erregistroan; idatzi haren bidez, zehapen-espedita hastearen aurka agertu zen eta hura amaitzeko ebazpena emateko eskatu zuen (43-44 bitarteko folioak).
6. Elkargoari informazioa eskatzeko probidentzia eman zen 2015eko azaroaren 23an, eta 2015eko azaroaren 26an jakinarazi (45-46 bitarteko folioak).
7. LEAren erregistroan Elkargoko dekanoak igorritako idatzia sartu zen 2016ko otsailaren 5ean; Elkargoak 2016ko urtarrilaren 20ko Batzar Nagusi Berezian onartutako Estatutuen aldaketaren izapideak egiteko Eusko Jaurlaritzari bidalitako agiriak erantsi zituen haren bitartez (722-784 folioak).
8. Probidentzia eman zen 2016ko martxoaren 10ean, elkargokideen % 10eko lagin adierazgarri bati espedita eremuari buruzko informazio jakin bat eskatzeko (785-1etik 785-3ra bitarteko folioak).
9. LEAren erregistroan Eusko Jaurlaritzaren eskudun Zuzendaritzaren idatzia sartu zen 2016ko martxoaren 22n; haren bidez Bizkaiko Psikologia Elkargoak izapidetutako Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsi zuen, lehiaren arloan indarrean den araudiarekin bat datorren azaltzeko txostena egiteko. Proposatutako aldaketak, besteak beste, baremoei buruzko erreferentziak barnean hartzen dituen artikuluari dagozkie.
10. Zehapen-espedita erabaki zen 2016ko martxoaren 22an (1249-1250 bitarteko folioak).
11. LEAren Lehiaren Euskal Kontseiluak Elkargoaren Estatutuei buruzko txostena egin zuen 2016ko apirilaren 26an³.
12. LEAren artxiboan jasotako honako agiri hauek espedita eransteko eginbidea gauzatu zen 2016ko irailaren 13an:
 - Estatutuak aldatzeko proposamenaren zirriborroa, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialak LDEZari 2009ko azaroaren 12an igorrita berrikusi eta balioesteko.
 - LDEZak zirriborro horri buruz 2009ko abenduaren 22an egindako txostena. (1610-1646 bitarteko folioak).

³ LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. *Bizkaiko Psikologia Elkargoaren Estatutuei buruzko txostena*. 10/19-PROM-2016 zenbakidun LEA Proiektua. Webgune honetan eskuragarri: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/10-19-INFORME%20ESTATUTOS%20PSICOLOGOS%20BIZKAIA%20definitivo.pdf.



13. Egitateak zehazteko plegua egin zen 2016ko azaroaren 29an, interesdunei jakinarazteko 2016ko abenduaren 1ean igorrita. Hamabost egun balioduneko epea eman zen horri erantzuteko eta, hala bazegokion, frogak proposatzeko.

14. Instrukzio-aldia ixtea eta interesdunei jakinaraztea erabakitzen zuen probidentzia egin zen 2017ko urtarrilaren 13an.

15. Ebazpen Proposamena 2017ko otsailaren 24an eman zen (1697-1718 bitarteko folioak), interesdunei jakinarazita; 2017ko otsailaren 27an Elkargoari eta 2017ko otsailaren 28an MLBNren Lehiaketaren Zuzendaritzari. Hamabost egun balioduneko epea eman zen alegazioak egiteko zein froga eta jarduketa osagarriak proposatzeko LEKaren aurrean eta ikustaldia egiteko, hala badagokio.

Halaber, Psikologia Elkargoari elkargokideen negozio-bolumenaren 2016ko ekitaldiko kopurua igortzeko ere eskatu zitzaion.

LEAren erregistroan Psikologia Elkargoaren bi idatzi sartu ziren 2017ko martxoaren 20an. Horietan lehenaren bidez, Elkargoak elkargokideen negozio-bolumenaren kopururik, ez duela erantzun zuen, eta korporazio horretara atxikitako psikologoek datuak biltzeko eskumenik ere ez duela (1745-1746 bitarteko folioak).

Bigarren idatziak Ebazpen Proposamenerako alegazioak eta ikustaldia egiteko eskaera biltzen ditu.

16. Administrazio-espedientea, Ebazpen Proposamena eta Elkargoak aurkeztutako alegazioek Ebazpen Proposamenean adierazitakoa ez dutela indargabetzen adierazten duen txostena igorri zizkieten LEKari 2017ko martxoaren 28an. Halaber, Elkargoak ikustaldia egiteko eskatu duela ere jakinarazi zaio LEKari.

II. BIZKAIKO PSIKOLOGIA ELKARGO OFIZIALA

17. Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofiziala Dekretu bidez sortu zen 2001ean, nazio mailako Psikologoek Elkargo Ofizialetik banandu ostean⁴. Zuzenbide

⁴ Elkargoaren izen ofiziala Bizkaiko Psikologoek Elkargo Ofiziala zen 2002an, baina Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren izena hartu zuen 2012an. Ebazpenean egungo izena bakarrik erabiliko dugu, izen-aldaketa gertatu aurreko Elkargoaren jarduketak aipatu arren.

43/1979 Legea, abenduaren 31koa, Psikologoek Elkargo Ofiziala sortzeari buruzkoa (1980ko urtarrilaren 8ko BOE, 7. zk.). 247/2001 Dekretua, urriaren 23koa, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Psikologoek Elkargo Ofizialak sortzekoa. 2001eko azaroaren 6ko EHAA, 214. zenbakia.



publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa eta bere xedeak betetzeko erabateko gaitasuna eta autonomia dituena⁵.

Bizkaia du lurralde-eremutzat, eta egoitza Bilbon du.

2.347 elkargokide ditu⁶.

III. FROGATUTAKO EGITATEAK

18. Elkargoaren Estatutuen 4. artikuluan haren eginkizunak daude jasota, eta, ñ) letrak xedatzen du Elkargoari dagokiola elkargokideen zerbitzuak emateko ordainsari-baremoak ezartzea:

«ñ. Ordainsari profesionalak eztabaidatzen direneko prozedura judizial edo administratiboetan irizpena ematea. **Ordainsari-baremo orientagarriak zehaztea**».

Aipatutako Estatuak 2002an onartu ziren eta, ondoren, 2012an aldatu zituzten. 4. artikuluko ñ) letraren idazketa bera dago bi testuetan.

2017ko urtarrilaren 25ean, instrukzio-aldia amaitu ostean, EHAAn Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindua argitaratu zen, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketa onartzen duena⁷. Horietan ez dago jasota ordainsari-baremoak ezartzeko eginkizunik.

19. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA) 4/08 ebazpena eman zuen 2008ko urriaren 29an, eta honako jarduketa hauek egiteko eskatu zion LDEZari (176-234 folioak)⁸:

«1. LDEZk Euskal Autonomia Erkidegoko **lanbide-elkargoei jakinaraziko die Ebazpen hau**, eta sei hilabeteko epea emango die **beren borondatez honako hauek indargabe ditzaten: (a) prezioen talde-gomendioei dagozkien ordainsarien gutxi gorabeherako baremoak**; (b) oniritzien gehiegizko prezioak eta baldintzak; eta (c) LDLko 1. edo 2. artikuluek debekaturiko beste edozein jokabide. [...]»

⁵ Agindua, 2002ko maiatzaren 31koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Psikologoaren Elkargo Ofizialaren Estatuak onartzeko dena (2002ko abuztuaren 12ko EHAA, 151. zk). Honen bidez aldatuta: Agindua, 2012ko otsailaren 2koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzen duena (2012ko martxoaren 23ko EHAA, 60. zk.).

⁶ Ikus Elkargoaren webgunea: <https://copbizkaia.org/ventanilla/directorio.php?lang=eu&id=> (azken kontsulta 2016ko azaroaren 8an).

⁷ 2017ko otsailaren 17ko EHAA, 34. zenbakia.

⁸ Lehiaren Euskal Agintaritzaren otsailaren 2ko 1/2012 Legearen bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa betez, LEAren jarduerak hasitakoan iraungita gelditu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko LDEZ zein LDEA, LEAren aitzindariak izan zirenak. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zenbakiduna; 2012ko martxoaren 20ko 57. EHAAn eta 2012ko martxoaren 28ko 64. EHAAn argitaratutako akats-zuzenketak.



LDEZk Bizkaiko Psikologia Elkargoari idatzi bat igorri zion 2009ko urtarrilaren 8an; horren bidez, LDEAren 4/08 Ebazpenaren kopia eransteaz gain, 6 hilabeteko epea ere eman zuen baremoak, oniritzien gehiegizko prezio eta baldintzak zein LDLko 1. edo 2. artikuluek debekatutako beste edozein jokabide indargabetzeko. Halaber, ohartarazi egin zuen epea amaituta hori egin ezean, zehapen-espedita hasiko zitzaiola. Idatzia 2009ko urtarrilaren 14an jakinarazi zuten (173-203 bitarteko folioak).

LDEZk beste idatzi bat igorri zion Elkargoari 2009ko maiatzaren 18an –2009ko maiatzaren 27an jakinarazita–; haren bitartez Elkargoak ordura arte egindako jarduketei buruzko informazioa eskatu zitzaion (171. eta 172. folioak). Eskaera horri emandako erantzuna 2009ko ekainaren 8an sartu zen LDEZn. Elkargoak jakinarazi zuen horren bidez hainbat jarduketa egin zituela gutxi gorabeherako lansariei zegokienez, Elkargoaren estatutuak aldatzeko izapideei ekitea, besteak beste (236. folioa).

20. LDEZk Elkargoaren Estatutuei buruzko txostena egin zuen 2009ko ekainaren 9an (2002ko hasierako bertsioa), eta baremoak ezeztatzea proposatu zion Elkargoari (235-248. folioak).

21. Elkargoak Batzar Nagusi Berezian onartutako Estatutuen aldaketaren zirriborro berria igorri zion LDEZri 2009ko azaroaren 12an (249. folioa eta 1616-1646 bitarteko folioak). LDEZk 2009ko abenduaren 22an txostena emandako artikulua baino ez zituen barnean hartzen igorritako zirriborroak (251-255 eta 1611-1615 bitarteko folioak). Artikulu horien artean ez dago baremoei buruz hitz egiten duen Estatutuen 4. artikuluko ñ) letra.

LDEZn sartu zen 2011ko otsailaren 4an Elkargoaren Estatutuak aldatzeko proposamena, Eusko Jaurlaritzako eskudun Sailak txostena emateko igorrita. Igorritako zirriborroak aldatu nahi dituzten artikulua baino ez ditu jasotzen, eta horien artean ez dago 4. artikuluko ñ) letra. LDAZk, berriz ere, igorritako testuari buruzko txostena egin zuen, eta ez du, hortaz, aipatzen 4. artikuluko ñ) letra. Txostena 2011ko otsailaren 14an egin zen (260-267 bitarteko folioak).

22. 2012ko martxoaren 23ko EHAAren, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2012ko otsailaren 2ko Agindua argitaratu zen, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzen duena. 4. artikuluko ñ) letrak 2002ko eduki osoari eutsi dio.

23. Elkargoak, zehapen-espedita honi hasiera ematearen jakinarazpena (2015eko urriaren 27an) jaso ondoren, estatutuak horri dagokionez aldatzeko izapideak hasi zituen. Elkargoaren Gobernu Batzarrak, 2015eko azaroaren 4an,



4. artikuluko ñ) letra ezabatzeko eta horretarako Batzar Nagusi Berezia deitzeko izapideak hasia onartu zuen, besteak beste (103., 104. eta 669. folioak). Aldaketa hori 2016ko urtarrilaren 20an egindako bilkura berezian onartu zuten (724. folioa).

24. Eusko Jaurlaritzako eskudun Zuzendaritzaren idatzia sartu zen 2016ko martxoaren 22an LEAren erregistroan. Elkargoak proposatutako estatutuen aldaketaren kopia erantsi zioten idatzi horri, txostena emateko. Proposatutako beste aldaketa batzuekin batera, 4. artikuluko ñ) letra ezabatzea zegoen jasota.

25. Lehiaren Euskal Agintaritzaren Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), 2016ko apirilaren 26an, txostena egin zuen proposatutako aldaketekin lotuta, bai eta Elkargoaren Estatutuetan jasota zeuden eta lehiari eragin ziezaioketen gainontzeko alderdiei zegokienez ere.

Elkargoak proposatutako 4. artikuluko ñ) letra ezabatzearen aldeko balorazioa egin zuen LEK-k, «ordainsari-baremoa ezartzea Legez berariaz debekatutako jokabidea baita eta LDL urratzen baitu»⁹. GZP egiteko egunean Estatutuen aldaketa agindu bidez onartu eta EHAA-n argitaratu gabe zegoen oraindik.

26. Espedientean egiaztatuta gelditu da Elkargoak gutxi gorabeherako ordainsarien berri maiz eman duela Elkargoaren hainbat hedabidetan 2003-2009 aldian (126-127 folioak); (128-129 folioak); (130-131 folioak); (132-133 folioak); (134-135 folioak), (136-137 folioak); (138-139 folioak). Urte horretatik aurrera, erreferentziak ahozkoak eta noizbehinkakoak dira (50., 1430. eta 1512. folioak).

Elkargoaren Gobernu Batzarrak 2009an eginiko zenbait aktatan jasota dago Elkargoak jakin badakiela Estatutuetan ordainsari-baremoak edukitzeari lehiaren agintaritzak arau-haustea deritzola (140-143 folioak eta 372. folioa) (376. folioa) (150-152 folioak eta 390. folioa) (153-154 folioak eta 393. folioa) (159. eta 398. folioak).

Elkargoaren Batzarrak, 2015ean, zehapen-espedientea hasitakoan, Estatutuak aldatzeko erabakia hartu zuen (669. eta 674. folioak).

⁹ Ikus LEKren txostenaren 12 zenbakia.



IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Psikologia Elkargoari aplikagarri zaion araudia

27. Elkargoaren jarduna Lanbide Elkargoen Estatuko Legeak (LEL) eta Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko Euskal Legeak zuzentzen dute¹⁰.

2002an –Elkargoaren Estatuak onartu zituztenean, alegia– indarrean zen araudiak, Lanbide Elkargoen Legearen 5. artikulua, elkargoei zegozkien berezko eginkizunen artean, hau jasotzen zuen:

«ñ) Ordainsari-baremo orientagarriak zehaztea».

Elkargoen Euskal Legearen 24. artikuluko e) letrak, orobat, orduan indarrean zen bertsioan, eginkizun hau hartzen zuen lanbide-elkargoen berezkozat:

«e) Ordainsari-baremo orientagarriak zehaztea».

28. Barne-merkatuko zerbitzuen 2006ko zuzentarauak estatu kideen araudi osoa aldatzea eskatu zuen, haien edukiak zerbitzu-jarduerak garatzea oztopatzen bazuen eta, ondorioz, aurretik aipatutako lanbide-elkargoen araudia¹¹.

Omnibus Legea 2009an jarri zen indarrean¹². Lege horrek LELeko zenbait manu aldatu zituen: LELaren 5. artikuluko ñ letra ezabatu zen (*Omnibus* Legearen 5. artikulua) eta 14. artikulua gehitu zen; hain zuzen, ordainsariei buruzko gomendiorik egitearen debekua ezartzeko:

¹⁰ Estatuko 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionaleri buruzkoa (BOE, 40. zk., 1974ko otsailaren 15ekoa). Honako hauek aldatuta: 5/2012 Legea, uztailaren 6koa (BOE-A-2012-9112); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa (BOE-A-2009-20725); 6/2000 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa (BOE-A-2000-11836); 6/1999 Errege Lege Dekretua, apirilaren 16koa (BOE-A-1999-8577); 7/1997 Legea, apirilaren 14koa (BOE-A-1997-7879); 5/1996 Errege Lege Dekretua, ekainaren 7koa (BOE-A-1996-13000), 74/1978, abenduaren 26koa (BOE-A-1979-697).

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea, 1997ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk. 7/2012 Legeak, apirilaren 23koak, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoak, aldatuta. EHAA, 84. zenbakia, astelehena, 2012ko apirilak 30.

¹¹ 2006/123/EE Zuzentaraia, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa. 2006ko abenduaren 27ko EBAOL, 376. zenbakia.

¹² 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatzeko, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko Legea egokitzeko. 2009ko abenduaren 23ko BOE, 308. zenbakia. 2009ko abenduaren 27an jarri zen indarrean.



«Elkargo profesionalek eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionalei buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

Aipatutako xedapen gehigarriak honako salbuespen hau ezartzen du **abokatuen kostuen tasazioari eta kontuen zinari** dagokienez soilik:

«Elkargoek **irizpide orientagarriak** prestatu ahal izango dituzte, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko.

Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.»

2012an, EAeko lurralde-esparruan, EPLko zenbait artikuluko zituen euskal legea onartu zen. Artikulu horiek dira, besteak beste, 24. artikuluko e) letra, aurrerantzean Estatuko legean idatzita dagoen moduan idatzita egongo zena.

Omnibus Legearen arau-aldaketen ondoren, LELaren 2.4 artikulua xedatzen du Elkargoen akordioak, erabakiak eta gomendioak lehiari buruzko araudiaren mende daudela.

2. Tipikotasuna

29. Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikuluko 1 zenbakiak honako hau ezartzen du:

«Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki-motak egongo dira debekatuta:

a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.»

30. Espedientea izapidetu bitartean, Elkargoaren Estatutuek, eginkizunen artean, ordainsari-baremoak ezartzea jasotzen dutela egiaztatu da.

Ordenamendu juridikoak debekatutako klausula bat mantendu du Elkargoak Estatutuetan, LAEZk manu hori legez kanpoko zela 2009ko urtarrilaren 14an eta maiatzaren 27an ohartarazi zion eta legez kanpoko bilakatutako baremoak indargabetzeko borondatezko epea eman zion arren.

Elkargoak estatutuak aldatu zituen data horren ostean, baina ez zuen aldatu 4. artikuluko ñ) letra, LAEZri hala egiteko asmoa jakinarazi bazion ere.

Lehiaren Euskal Kontseiluak zehapen-espedientea hastea 2015eko urriaren 27an jakinarazi ondoren baino ez zituen hasi Elkargoak baremoei buruzko manua benetan indargabetzeko izapideak.



31. Aurrekari ugariekin bat etorriz, lanbide-elkargoek ordainsari-baremoak ezartzea Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikuluko arau-haustetzat hartzen da¹³.

Zentzu bereko adierazpenak egin ditu MLBNk MADRILGO ABOKATUEN ELKARGOAREN LANBIDE ORDAINSARIEI BURUZKO EBAZPENEAN¹⁴:

Baina, Estatutu horiek webean onartu zituztenetik edo hilabete edo urte batzuk geroago argitaratuta egon ziren alde batera utzita, agerikoa da Omnibus Legea 2009ko abenduan indarrean jarri zenez geroztik, horietako manu bat, 4. artikuluko p) letra, arau horren eta LDLaren aurkakoa da, Madrilgo Abokatuen Elkargoa haren mende egonik LELean xedatutakoaren arabera. Hau da, sei urtez baino gehiagoz Madrilgo Abokatuen Elkargoak lehiaren defentsarako araudiaren aurkako manua eduki zuen estatutuetan, eta ez zuen jarduketarik egin hura formalki indargabetzeko. (...) Era berean, instrukzio-organoak Madrilgo Abokatuen Elkargoaren aldetik arretarik ez egotea hartu behar du kontuan ebazpen hau zaintzeko lanetan.

Aipatutako artikulua lehia mugatzea edo faltsutzea «xede» edo «efektu» duten jokabideak debekatzen ditu.

Estatutuek Elkargoaren eginkizunen artean gutxi gorabeherako ordainsariak ezartzea biltzea, jokabide hori legez kanpoko delat behin eta berriz jakinarazi arren, lehiaren aurkako jokabidea da «per se» edo xedeagatik, eta administratzaileak ez du zertan aztertu merkatuan egiaz eragindako kaltea.

¹³ MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA: Ebazpena, 2015eko uztailearen 23koa. Espedientea: SACAN/31/2013 Las Palmasko Abokatuen Elkargoaren Lanbide Ordainsariak https://www.cnmc.es/sites/default/files/684466_8.pdf; Ebazpena, 2015eko azaroaren 19koa. Espedientea: SAMUR/DC/0003/13, Murtziako Finka Administratzaileen Elkargo Ofiziala https://www.cnmc.es/sites/default/files/771037_15.pdf; Ebazpena, 2016ko irailaren 15koa. Espedientea: SAMAD/09/2013 BIS AHAEO LANBIDE ORDAINSARIAK https://www.cnmc.es/sites/default/files/976828_16.pdf; Ebazpena, 2016ko abenduaren 22koa. Espedientea: S/DC/0560/15, Guadalajarako Abokatuen Elkargoa 2. Web-orria: https://www.cnmc.es/sites/default/files/1493570_1.pdf; Ebazpena, 2015eko abenduaren 17koa. Espedientea: S/0299/10 Odontologo eta Estomatologoaren Elkargoaren Kontseilua. Web-orria: https://www.cnmc.es/sites/default/files/800072_8.pdf. LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondorengo Elkargo Profesionalei buruzko txostena.* Madril, 2012ko apirilaren 26a, LBN, <http://www.cncompetencia.es/Inicio/Noticias/tabid/105/Default.aspx?Contentid=475051>. 71. or. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. *Arabako Graduatu Sozialen Elkargo Prestuaren Estatutuei buruzko txostena.* 10/20-PROM-2016 zenbakidun LEA Proiektua. Web-orria: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/10_20_INFORME_GRADUADOS_SOCIALES_ALAVA_web_eu.pdf; *Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena Bizkaiko Industria Ingeniariei Elkargo Ofizialaren estatutuei dagokienez.* [http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/informe_ingenieros_industriales_bizkaia_DEFINITIVO_\(15-6-2015\)_eu_eu.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/informe_ingenieros_industriales_bizkaia_DEFINITIVO_(15-6-2015)_eu_eu.pdf)

¹⁴ MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA: Ebazpena, 2016ko irailaren 15koa. Espedientea: SAMAD 09/2013 MADRILGO ABOKATUEN ELKARGOAREN LANBIDE ORDAINSARIAK https://www.cnmc.es/sites/default/files/976823_17.pdf



Jurisprudentzia argia da; izan ere, lehia mugatzeko era jakin batzuk, bere izaera dela eta, lehiaren ohiko jokoaren jardun onerako kaltegarritzat har daitezkeela xedatzen du.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) C-226/11 auzian emandako epaian hauxe dio:

Justizia Auzitegiak xedatu du «xedeagatiko arau-haste»en eta «efektuagatiko arau-hauste»en arteko bereizketa dela enpresen arteko kolusio era jakin batzuk, izaeragatik, lehiaren ohiko jokoaren jardura onerako kaltegarritzat har daitezkeela.

Berriki, gainera, EBJAk 2016ko urtarrilaren 20an C-373/14 auzian emandako epaian:

(...) debekuaren pean erortzeko (...) erabaki batek «xede edo efektutzat» eduki behar du merkatu erkidearen barruan lehiaren jokoa eragozteko, mugatzea edo faltsutzea. (...) baldintza horren ordeko izaeragatik, «edo» juntagailuak adierazten duen moduan, erabakiaren xedea bera hartu behar da kontuan lehenik (...). Hala bada, erabaki batek lehiari izandako eraginak aztertu beharrik ez dago egiaztatuta bada haren xedea lehiaren aurkakoa dela.

Auzitegi Gorenak (AG) bat egin du Europako jurisprudenziarekin, eta hura aipatu du 2015eko abenduaren 9ko epaian:

(...) «xedeagatiko arau-haustea» dagoela jotzeko zantzu nahikorik ez dagoenean baino ez da eskatzen erabaki baten lehiaren aurkako efektu zehatzak egiaztatzeko. Dena delako erabaki horrek lehiaren aurkako xedea duela egiaztatuta gelditzen denean, ordea, ez dira egiaztatu behar erabaki horrek lehiaren gainean eta, ondorioz, aplikatzen den merkatuaren gainean zehazki zer eragin kaltegarri dituen. Halakoetan aski da azaltzea erabaki horrek lehiaren jokoa barne-merkatuan eragotzi, mugatu edo faltsutu ahal duela.

Auzitegi Nazionalak (AN) horri buruz ere hitz egin du 294/2016 epaian. Horretan EBJAk C-8/08 T-Mobile auzian 2009ko ekainaren 4an eman zuen epaia aipatu du, xedeagatiko eta efektuagatiko arau-hausteen arteko bereizketaren jurisprudentzia-tratamenduaz aritzen dena, eta nabarmendu du arau-haustea xedeagatik izango dela jokabidea, bere izaera dela eta, kaltegarria bada lehia askearen jardura onerako, horri buruzko adibide klasikoa prezioak finkatzeko akordioak izanik, horiek zuzenean edo zeharka egiten dituztela. Ondorioz, hitzartutako praktika baten eraginak aztertu beharrik ez da egongo egiaztatuta gelditzen bada haren xedea lehiaren aurkakoa dela.

32. Aztertutako kasuan egiaztatuta gelditu da dena delako jokabide horren xedea lehiaren aurkakoa dela eta, ondorioz, arau-haustea dela.

33. Elkargoak alegatu du jokabidea atipikoa dela ez delako egiaztatu 2008aren osteko efekturik.



Baieztapen hori zehaztugabetzat hartu behar da, efektuak egiaztatu egin direlako, baina, nolanahi ere, baztertu beharrekoa da, Elkargoak, ohartarazpen ugari jasota ere, xedeagatiko arau-haustea egin baitu.

34. Elkargoak alegazioetan adierazi du estatutueta gutxi gorabeherako ordainsariak ezartzeko eginkizuna indargabetutzat jotzen dela Omnibus Legea 2009ko abenduaren 27an indarrean jarri zenean, eta eginkizunari Estatutueta eustea ez dela kolusiozko jarduketa LDLaren 1. artikuluan azaldutakoari jarraikiz.

LAEZk arau-aldaketaren eta Estatutuak ez aldatzeak izango zituen ondorioen berri eman zion 2009ko urtarrilaren 14an (aldaketa egiteko 6 hilabeteko epea emanda) eta maiatzaren 27an.

Elkargoak 2009ko ekainaren 8an jakinarazi zion LAEZri estatutuak aldatzeko izapideak hasi zituela (125. eta 236. folioak).

Gobernu Batzarrak 2009ko ekainaren 2an egindako bilkuraren 8/2009 aktak, 7. puntuan, hauxe dio:

«Lehiaren Euskal Auzitegia». Erabaki da Dekanoa, [...], Lehiaren Euskal Auzitegiarekin harremanetan jarriko dela adierazteko Bizkaiko PEOk ez duela jada Gutxieneko Ordainsarien Taula argitaratzen ez argitalpenetan, ezta webean ere, eta, estatutu berrien idazketan desagertu dela, orobat, gau horri buruzko erreferentzia oro.¹⁵» (150-152 folioak eta 390. folioa).

LAEZk, 2009ko ekainaren 9an, Elkargoaren Estatutuen testuari buruzko txostena egin zuen, eta berriro ere proposatu zion Elkargoari baremoak ezabatzea.

Elkargoak Estatutuak legezkotasunera egokitu behar ditu.

Ez arau-aldaketaren berri jasotzeak, ezta lehiaren agintaritzak behin eta berriz egindako jarduketek ere, ez dute ondoriotzat eduki Elkargoaren Estatutuak puntu horretan aldatzea –beste batzuk bai aldatu dituztela, ordea–, harik eta zehapen-espeditentea hasi den arte. Gainera, jakin badakigu Elkargoak baremoen berri eman duela arauaren ustezko aldaketaren ondoren, modu ez horren formal eta sistematikoan izan bada ere.

Horregatik, Elkargoaren alegazioa baztertu beharrekoa da.

3. Antijuridikotasuna

35. Bestalde, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 4.2. artikulua honako hau xedatzen du: «Arauan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera

¹⁵ Berezko azpimarratzea.



jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, baldin eta lege-babesik gabe burutzen badira». Beraz, lege-mailako arau batek argi baimentzen ez badu behintzat, aurrekarietan deskribatutako jarduerak lehia-zuzenbidearen mende daude.

Auzitegi Gorenak, lehen aipatu dugun 2015eko martxoaren 9ko sententzian, honako hau adierazten zuen:

«Azken batez, 15/2007 Legearen 4.1 artikulua asmoa ez da Lehiaren Zuzenbidearen aplikazio-esparrutik kanpo uztea arau baten babesean egiten den edozein jardura, baizik eta, soilik, Lege batek xede zehatz batekin (berariaz edo modu inplizituan) 15/2007 Legearen 1. artikuluko debekuen aplikazio-esparrutik kanpo uzten dituen jarduerak».

Hau da, Elkargoak lehiaren aurkako bere jokabidea babes lezake xedetzat lehiaren defentsarako arauak bazter daitezen baimentzea duen lege-mailako arau baten barruan.

36. Elkargoak alegazioetan adierazi du Estatutueta baremoak finkatzeko eginkizuna legez babestuta dagoela Epaitegiei, Auzitegiei edo beste edozein administrazio-erakunderi ordainsari eztabaidagarrien zuzentasun posibleari buruz jakinaraztea baitu xedetzat, Prozedura Zibilari buruzko Legearen (PZL) 242.5 eta 246.1 eta 2. artikuluetan xedatutakoa betez¹⁶.

37. LELaren 14. artikulua –lehen aipatuta– xedatzen du profesionalen ordainsariak aske ezarri beharrekoak direla eta Elkargoak ez duela zerikusirik izan behar halakoak zehazteko eginkizunarekin; debekatuta dago, orobat, elkargoek ordainsariei buruzko era guztietako orientabiderik ematea.

LELaren laugarren xedapenak egiten duen salbuespen bakarra **irizpide orientagarriak** prestatzeari buruzkoa da, **kostuak tasatzeko eta abokatuaren kontuei zin egiteko soilik**.

Kostuak tasatzea aipatzen duen PZLko 242.5 artikulua xedatzen du arantzelpen ez dauden profesionalen «euren zerbitzu-sariak zehaztuko dituztela, horien lanbide-estatutuak xedatu arauei jarraituz, hala denean».

Ordainsariak gehiegizkoak izateagatik aurkaratzeko kasuei buruzkoak dira 246. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak, eta xedatzen dutenez, peritu baten ordainsaria

¹⁶ 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilari buruzkoa, 2000ko urtarrilaren 8ko BOE, 7. zk. Testu kontsolidatua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2000-323>



zalantzan jarriz gero, «auzi-paperen agiri kautoa edo horietatik beharrezko den zatiarena igorriko zaio Elkargoari, horrek txostena egin dezan».

Hau da, nola kostuak jartzeko hala perituen ordainsariak aurkaratzeko, auzitegiek txostenak eskatu ahal dizkiete Elkargoari, eta perituaren ordainsaria gehiegizkotzat jotzen duten adierazi beharko dute horiek.

Manu horietan ezerk ere ez du Elkargoa baimentzen emandako zerbitzuen prezioen baremoak ezar ditzan, ezta hurrik eman ere.

Aurreko manuetatik ondorioztatzen da LELEK **Abokatuen** Elkargoari baimena ematen diela **gutxi gorabeherako irizpideak** osatu ditzaten xede jakin batekin, baina ez du inola ere baimentzen ez Abokatuen Elkargoa, ezta beste edozein ere, zerbitzuengatik prezioen baremo finkoak ezartzea edota gutxienekoak edo orientabideak ezartzea¹⁷. Psikologia Elkargoak arazorik gabe bideratu ditzake perituen ordainsarien izaerari buruzko nahitaezko txostenak, PZL guttiz beteta eta LEL urratu gabe; hala, Legeak kontuei zin egiteko edo kostuak jartzeko kasu zehatzetan eskatzen dion bezala, kasuaren inguruabarrak, lanaren zailtasuna, haren iraupena edo Elkargoak ezagutzen duen beste edozein zirkunstantzia zehaztuko ditu, horregatik eskatzen dio PZLk esku har dezan, hain zuzen ere.

Horregatik guztiak, ondorioztatu beharra dago jokabide hori ez dela lege batean xedatutakoa aplikatzearen ondorioa eta, horrenbestez, Elkargoaren alegazioa baztertu behar da.

4. Erantzukizuna

38. LDLko 63.1 artikulua xedatzen du zehapenak ezarri ahal izango zaizkiela LDLn ezarritakoa nahita edo zabarkeriaz betetzen ez duten operadoreei.

Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorri —Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere jasotzen du 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaian eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaian—, Administrazioaren erantzukizunaren esparruan ez da nahikoa jokabide tipikoa eta antijuridikoa izatea, horrez gain beharrezkoa baita erruduna izatea. Erruduntasuna elementu saihestezina da zehapen-eskubidearen aplikazioari buruz ari garenean, eta beharrezkoa da gauzatutako jarduketa-espeditentean sartuta daudenei egozte, bai dolu gisa bai zuhurtasun falta gisa; hau da, subjektuak nahita jardutea edo kontziente izatea —eskatzen zitzaion diligentzia

¹⁷ Irizpideen eta baremoen arteko aldeari dagokionez, ikus MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. Ebazpena, 2016ko irailaren 15ekoa. Espedientea: SAMAD/09/2013 MADRILGO ABOKATUEN ELKARGOAREN LANBIDE ORDAINSARIAK https://www.cnmc.es/sites/default/files/976823_12.pdf.



alde batera utzi izanagatik– bere egintzak lehia askeari eraso egin diezaiokeela edo egiten diola.

Hala, Auzitegi Gorenak 2010eko uztailaren 6ko epaian ezarri zuen bezala, «honako hau ulertu behar da erruduntasunaz: egitez edo ez-egitez egitate tipiko eta antijuridiko bat egin duenari zuzendutako gaitzespenezko iritzi pertsonala; horrek dakar berekin egilea, konplizea edo estaltzailea izatea jokabide ez-zilegia dakarren egitean edo ez-egitean; egileari egotzi ahal izatea aipatu egitatea, haren jarduteko gaitasuna aldatzen duen inguruabarririk ez dela, eta egile hori errudun izatea, hau da, jakinean eta nahita aritu izana, edo intentzioso moduan, edo erruzko moduan».

39. Kasu honetan Elkargoak jakin bazekien jokabidea zuzenbidearen aurkakoa zela; izan ere, LDEZk horren gaineko hainbat txosten igorri zizkion, aldaketa egiteko epea ere emanda, eta Elkargoak aldaketa gauzatzeko asmoa ere agertu zuen.

Elkargoak Estatutuak indarrean den legeriara egokitu behar ditu. Arauetan lehiaren aurkako erregelak edukitzea, haien ez-zilegitasunaren jakitun, okerrera eramaten ditu elkargoko kideak eta, horregatik, berez da arau-haustea. Gainera, Elkargoak aldaketak ere egin ditu Estatutuetan 2009aren ostean, ez, ordea, nahitaezko aldaketa eta, banan-banan, modu ez-sistematikoan eta ohi zuen publizitatea eman gabe izan arren, zerbitzuak emateagatiko prezioen berri eman die elkargoko kideei.

Hori dela eta, tipoaren elementu subjektiboa betetzen dela jo beharra dago.

40. Elkargoak bere burua erantzukizunetik salbuetsi nahi du fede ona eta bere jardunarekiko bidezko konfiantza alegatuz.

A. Fede ona

41. Eusko Jaurlaritzaren zein LEAren erabakiei eta gomendioei men egiteko orduan fede ona eta prestasuna izan duela adierazi du Elkargoak, eta horren adibide gisa jarri du Elkargoak 4. artikuluko ñ) letra osoa ezabatzeko izapidetutako Estatutuen berrikuspen berria. Ekimen hori 2015eko azaroaren 4an egindako bilkuran bultzatu zuen Gobernu Batzarrak, eta 2015eko abenduaren 16ko Batzar Nagusi Bereziak berretsi zuen.

42. Egiaztatuta gelditu da, 2009ko urtarrilaren 8an egiteko eskaera egin arren, Elkargoak ez zituela hasi baremoak finkatzeko eginkizuna jasotzen duen manua indargabetzeko izapideak, harik eta zehapen-espeditente hau hasi zen arte.



Horregatik ez dago alegazio hori onartzerik.

B. Bidezko konfiantza

43. Bidezko konfiantzak subjektuaren erruduntasunari eragiten dio eta, ondorioz, baita bere portaera ekonomikoki zigortzeko aukerari ere. Bidezko konfiantzaren printzipioa SPAJL Legearen 3. artikuluan dago jasota¹⁸.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorriz, legeko konfiantzaren printzipioa aplikatu behar da Administrazioak sortutako kanpoko seinaleetan oinarritzen denean, betiere eztaba daezinak badira onuradun partikularrari eragiteko administrazio-jardueraren legezkotasunean konfiantza izatea¹⁹.

Era berean, Auzitegi Gorenak adierazi zuen legezkotasunaren konfiantza babesteko printzipioa aplikatu behar dela, baina ez partikular onuradunak edozein motatako uste psikologikoa duenean, Administrazioak sortutako kanpoko seinaleetan oinarritzen denean baizik, betiere uste horiek eztaba daezinak badira hiritarrari administrazio-jardueraren legezkotasunean konfiantza izatea eragiteko. Bidezko konfiantza jotzeko honako baldintza hauek daude²⁰:

¹⁸ Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikulua (Printzipio orokorrak). 2015eko urriaren 2ko BOE, 236. zenbakia. Errore-zuzenketa, 2015eko abenduaren 23ko BOE, 306. zenbakia. 1. Herri-administrazioek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, eraginkortasun, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta Zuzenbidea. Jardun eta harremanetan honako printzipio hauek errespetatu beharko dituzte: e) Fede ona, bidezko konfiantza eta erakunde-leialtasuna.

¹⁹ 773/1990 AGE, 1990eko otsailaren 1ekoa; 15554/1990 AGE, 1990eko otsailaren 1ekoa; 5320/1997 AGE, 1375/2000 AGE, 2000ko otsailaren 23koa, 1997ko uztailaren 28koa; 6785/2000 AGE, 2000ko irailaren 26koa; 6868/2009 AGE, 2009ko azaroaren 3koa; 6164/2013 AGE, 2013ko azaroaren 22koa, 1858/2015 AGE, 2015ko maiatzaren 4koa.

²⁰ EBJAren hainbat epaik diote printzipio horri ezin diola inola ere heldu indarreko araudiaren ageriko arau-hauste baten erruduna denak; hala dio EBJAk C-383/06 Vereniging auzian emandako 2008ko martxoaren 13ko epaiak, besteak beste.

Auzitegi Gorenak, 2004ko otsailaren 9ko epaian, xedatzen du Administrazioaren jardunean «hiritarraren bidezko konfiantzaren babes-printzipioa» ez dela aplikatzen partikularraren era guztietako uste psikologiko subjektiboa dagoenean, baizik eta «konfiantza» hori Administrazioak eragindako kanpoko zeinu edo egitatetan oinarritzen denean, eta horiek behar bezain irmoak badira ekintza zehatz horien bidez administrazioaren jardunak erakusten duen legezkotasun-itxuraz hura fio izatera eraman dezaten.

Auzitegi Gorenak beste epai batzuetan (2007ko abenduaren 18ko eta 1999ko otsailaren 1eko Auzitegi Gorenaren epaiak) gogorarazten du legezkotasun-printzipioak lehentasuna izan behar duela bidezko konfiantzaren printzipioaren gainetik: «printzipio horretara jotzerik ez dago, Zuzenbide publikoaren esparruan, ordenamendu juridikoaren aurkako egoerak sortu, mantendu edo zabaltzeko, edo aurreko egintza kontrajartzen bazaio arau juridiko batek babestutako xede edo interesari, baldin eta, haren izaeratik, ezin badu Administrazioaren aldeko eskumeneko



- a) Administrazioaren egintza bat egotea, zeinak eraginpeko pertsonarengan administrazioa zuzen ari dela, herritarraren jokabidea ere zuzena dela eta haren itxaropenak ere arrazoizkoak direlako konfiantza sortzen duen.
- b) Administrazioak sortutako kanpoko zeinuak, herritarra jokabide jakin batera bideratzen dutenak.
- c) Banakako egoera juridikoa aitortzen duen administrazioaren egintza, zeinaren iraunkortasunean interesdunak konfiantzarik izan zezakeen.
- d) Eraginpeko pertsonaren bidezko konfiantza eragiteko kausa egokia egotea, administrazioaren zabarkeria, ezjakintasun edo tolerantzia hutsez sortu ezin dena.
- e) Interesdunak dagozkion eskubideak eta betebeharrak ez betetzea.
- f) Horrela sortutako konfiantza ez betetzeak eraginpeko pertsonarengan jasan behar ez dituen kalteak eragitea.

44. Estatuetan 2012an egindako aldaketa Jaurlaritzak aldaketaren legezkotasuna egiaztatu ondoren Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak emandako aginduan babesten dela adierazi du Elkargoak.

Elkargoak aldaketa egiteko egindako eskaera horren barruan ez zegoen jasota espediente honen xede den baremoak ezartzeko eginkizunari buruzko manua. Horregatik, egindako txostenek ez dute gai hori aztertzen eta nekez ekar dezakete bidezko konfiantzarik.

5. Kalifikazioa

45. Bizkaiko Psikologia Elkargoak Estatutuen 4. artikuluko ñ) letra 2009tik gaur egun arte ez indargabetuta gutxi gorabeherako ordainsari-baremoak ezartzeko eginkizunari heltzea LDLren 1.1 artikuluan sailkatutako jokabidea da eta, gainera, antijuridikoa eta erruduna ere bada.

46. LDLko 62. artikulua hiru motatako arau-haustek sailkatzen ditu: arinak, astunak eta oso astunak. Artikulu horretako 4 zenbakiaren a) letrak oso astuntzat jotzen ditu honako hauek:

jokabide bat babestu, horrek haren egintzetatik datozen eskubide eta/edo betebeharrak batzuk aitortzea badakar. Edo, beste modu batera esanda, "egintza propioen" aipatutako doktrinak, azaldu berri dugun mugarik gabe, Zuzenbide publikoaren harremanen esparruan borondatearen autonomiaren printzipioa sar lezake aginduzko izaerako arauak erregulatutako gaiak antolatuzko metodo gisa, zeinetan legezkotasun-printzipioak zaindutako interes publikoa nagusitzen den; eta printzipio hori urratuko litzateke baliozkotasuna emango balitz. Administrazioaren antolamendu juridikoaren aurkako jarduketari bati, Administrazioak horrela erabaki duelako edo haren aurrekari bati erantzuten diolako soilik. (...) Edo, bestela esanda, ezin da legitimotzat jo arau inperatiboaren aurkako egintza edo aurrekari batean jarritako konfiantza».



Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen arteko kartel, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira.

6. Gai prozesalak

A. Zehapen-proposamena ez egitea

47. Lehiarekin lotutako arau-hausteagatik zehatzeko prozeduraren izapideak LDLren 49-54 bitarteko artikuluetan dauden araututa. Ebazpen-proposamenari dagokionez, 50.4 artikulua hau xedatzen du:

Instrukzio-aldian egin beharrekoak eginda, Ikerketen Zuzendaritzak ebazpen-proposamena egingo du, eta interesdunei jakinaraziko zaie, egoki irizitako alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten hamabost eguneko epean.

Ebazpen-proposamenek jaso behar duten gutxieneko edukia Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 34.1 artikuluan araututa dago²¹:

1. Ebazpen-proposamenean, gutxienez, honako hauek jasoko dira: espedientearen aurrekariak, egiaztatutako gertaerak, horien egileak, gertaerei dagokien kalifikazio juridikoa, arau-haustea dagoela aitortzeko proposamena, eta, hala badagokio, merkatuan izan dituen eraginak, egileei dagokien erantzukizuna, bildutako egoera astungarriak eta aringarriak eta Ikerketa Zuzendaritzak eginiko proposamena, uztailearen 3ko 15/2007 Legearen 65. eta 66. artikuluetan zehazten den isunaren zenbatekoa salbuetsi edo murrizteari buruzkoa. Ikerketa Zuzendaritzak debekatutako egintzak egotea frogatuta ez dagoela irizten duenean bere ebazpen-proposamenean inguruabar hori adieraziko du.

Ebazpen-proposamena, interesdunek instrukzioan zehar argudiatutako alegazioak eta horiek proposatutako probak barne hartuko dituena, probak egiten diren edo ez adieraziz, interesdunei jakinaraziko zaie, hamabost eguneko epean egokiak iruditzen zaizkien alegazioak azal ditzaten. Ikerketa Zuzendaritzaren ebazpen-proposamenari egin zaizkion alegazioek, hala denean, probak egiteari eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluan egindako jarduketara osagarriei dagokienez alderdien proposamenak izan behar dituzte, baita ikustaldia egiteko eskaria ere.

48. Elkargoak alegatu du ebazpen-proposamenak omisio-inkongruentzia egin duela, ez baititu zehazten aztertutako egitateen zehapen-ondorioak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen

²¹ Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretua, Lehia Defendatzeko Erregelamendua onartzen duena. BOE, 50. zk., 2008ko otsailaren 27koa. Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2008-3646>



89.3 artikulua hori eskatzen duen arren, eta horrek zehaztasunik eragingo lukeela²².

Adierazi berri dugun moduan, lehiaren arloko prozedurazko araudiak ez du exijitzen ebazpen-proposamenak ezarri beharreko zehapenaren proposamena ere barnean hartu behar duenik²³. Horregatik, adierazitako omisioa zuzentzeko jarduketak atzera eramateko azaldutako alegazioa baztertu beharra dago²⁴.

B. Ikustaldiaren eskaera

49. Elkargoak LEKren aurreko ikustaldia egitea eskatu du, eskaera horren zergatia justifikatu ez badu ere.

50. LDEren 19. artikulua xedatzen duenez LEK-k ikustaldia egitea erabaki ahal izango du, interesdunek eskatu ostean edo espedientearen xedea aztertzeko eta epaitzeko egokia iruditzen zaionean. Ikustaldiak helburutzat du alderdiei defendatzeko eskubidea artikulatzeko aukera ematea, LEKri espedientea egoki aztertzeko eta epaitzeko aukera ematen duten elementuak helarazita.

51. LEKren iritziz zehapen-prozeduran zehar aldeek eskubideak defendatzeko behar diren jarduketa guztiak gauzatzeko aukera izan dutela deritzo, alegazio guztiak egin eta egoki iritzi dieten agiriak aurkeztu dituzte horretarako.

²² 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 2015eko urriaren 2ko BOE, 236. zenbakia.

²³ Ebazpen-proposamenean zehapen-proposamen bat bazter uztea ez da lehiaren esparruan indarrean dagoen araudia berritzea, aurreko araudiari bete-betean eustea baizik, arlo horretako jatorrizko legea abiapuntu hartuta. Lehiaren jokabide murriztaileak zigortzeari buruzko uztailaren 20ko 110/1963 Legeak (1963ko uztailaren 23ko BOE, 175 zk.) honako hau ezartzen zuen 22.4 artikuluan: «zerbitzuaren zuzendariak, espedientea amaitu ondoren, Auzitegira igorriko du, txosten-proposamen batekin batera. Bertan jasoko dira ikusitako jokabideak, aurrekariak eta izan dituen eraginak». Lehia Defendatzeari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeak (1989ko uztailaren 18ko BOE, 170 zk.) honako hau ezartzen du 37.3 artikuluan «Zerbitzuak, instrukzioa amaitutakoan, Auzitegiari igorriko dio dosierra; dosierrarekin batera txosten bat igorriko dio, eta, bertan, hautemandako jokabideak, aurrekariak, egileak, merkatuari eragindako ondorioak, egitateen kalifikazioa eta egileei dagozkien erantzukizunak egongo dira zehaztuta».

²⁴ Esklusioa lehiaren defentsarako prozesuzko araudiaren espezialitate bat da, araudi orokorretik berezia, zehaztea bai exijitzen duen APELean oinarritzen dena, 89.3 artikuluan zehazki: «Ebazpen-proposamenean adierazitako da, modu arrazoituan, zer egitate ematen diren frogatutzat eta zer kalifikazio juridiko duten zehazki, zehaztuko da zer arau-hauste diren, hala badira, nor den edo diren erantzule eta zer zehapen proposatzen den, zein den egindako frogan balioespena, batez ere erabakiaren oinarri funtsezko direnena, eta behin-behineko zer neurri hartu den, hartu bada. Instrukziotik ondorioztatzen bada ez dagoela arau-hausterik edo erantzukizunik, eta ez bada baliatzen lehenengo zenbakian aurreikusitako ahalmena, hala jasoko da proposamenean».



LEKren iritziz prozeduran kontraesan-printzipioa errespetatu da eta ikustaldia ez da beharrezkoa espedienteaz aztertu eta epaitzeko; horrenbestez, ez da egokia egitea.

7. Zehapenaren zenbatekoa ezartzea

52. LDLaren 63. artikularen arabera, arau-hauste oso astunak zehatzeko, isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen negozio-bolumenaren ehuneko 10era arteko isuna jarri dakioko araua hautsi duen enpresari.

Negozioren bolumena zehazterik ez balego, arau-hauste oso astunak zehatzeko, 10 milioi euro baino gehiagoko isuna jarri ahal izango da.

53. LDLko 64.1 artikuluan xedatuta dago isunen zenbatekoa ezarriko dela irizpide hauek kontuan harturik, besteak beste:

- a) Arau-haustea eragiten dion merkatuaren neurria eta ezaugarriak.
- b) Erantzulea den edo diren enpresen merkatu-kuota.
- c) Arau-haustearen zenbaterainokoa.
- d) Arau-haustearen iraupena.
- e) Arau-haustea zer nolako ondorioak izan dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileen edo beste operadore ekonomiko batzuen eskubide eta bidezko interesetan.
- f) Arau-haustea dela eta bidegabeki zer nolako onurak eskuratu diren.
- g) Erantzulea den enpresa bakoitzaren kasuan, zer nolako gertakari astungarri edo aringarriak dauden.

54. Elkargoak ez du negozio-bolumenik eta, ondorioz, 63. artikularen 3 zenbakian xedatutakoa aplikatu ahal izango litzateke; 10 milioi euro baino gehiagoko isuna ezartzen du horrek.

Proporzionaltasun-printzipioak, ordea, zehapena haztatzea exijitzen du, kasuaren inguruabarrak aintzat hartuta²⁵.

²⁵ Bai LDLk bai Auzitegi Gorenak isunen kalkulari buruz emandako jurisprudentziak horrelakoak proportzionaltasun-printzipioa zehatz-mehatz errespetatuz hartu beharra eskatzen dute. Auzitegi Gorenaren Epaiak, 2015eko urtarrilaren 29koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 2872/2013 Kasazio Errekurtsoa; 2015eko otsailaren 9koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 1531/2013 Kasazio Errekurtsoa; 2015eko otsailaren 27koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 498/2014 Kasazio Errekurtsoa; 2015eko ekainaren 8koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 1763/2014 Kasazio Errekurtsoa; 2015eko ekainaren 22koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 1036/2013 Kasazio Errekurtsoa; 2015eko irailaren 28koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 836/2013 Kasazio Errekurtsoa; 2015eko irailaren 30koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 496/2013 Kasazio Errekurtsoa.



Horretarako, honako hauek hartu behar dira aintzat: jokabidea bost urte baino gehiagoz luzatu da; Elkargoak zerabilen jokabideak arau-haustea ekar zezakeela ohartarazten zion LEAren txostena jaso zuen; jokabidea aldatzeko asmoa lehiaren agintaritzari jakinarazi zion arren, Estatutuak aldatu zituen aipatutako manua indargabetu gabe. Espedientea hasi ondoren baino ez ditu Elkargoak Estatutuak aldatu eta une honetan manu hori ez dago jada Estatutuen barruan.

Hala eta guztiz ere, Elkargoak ordainsari-baremoen publizitate aktiboa geldiarazi du 2009an eta unean-unean eta banaka emandako jakinarazpenen berri baino ez dago; hori dela eta 2.347 euroko isun sinbolikoa jarri behar zaio.

V. EBAZTEN DU

LEHENENGOA.- Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikulua debekaturiko jokabidea egiteagatik izandako arau-hastea egiaztatutzat jotzea. Zehazki, Bizkaiko Psikologia Elkargoaren estatutuen 4. artikuluko ñ) letra ez du egokitu ordenamenduan izandako aldaketetara, eta horietan berariaz debekaturiko eginkizunari, gutxi gorabeherako ordainsari-baremoak ezartzeari alegia, eutsi dio 2009ko abendutik 2015eko urtarrilera arte.

Arau-haustearen erantzule jotzea Bizkaiko Psikologia Elkargoa, egoitza hemen duena: Rodriguez Arias kaleko 5eko 2. solairua, Bilbo (48008).

BIGARRENA.- Elkargoari agintzea ez dezala berriro izan xede hori edo antzeko bat duten edo eragin bera duten jokabiderik.

HIRUGARRENA.- Elkargoari agintzea ebazpen hau elkargoko kide guztiei jaso eta hilabeteko epean helaraz diezaien.

LAUGARRENA.- 2.347 euroko zehapena ezartzea.

BOSGARRENA.- Elkargoari agintzea LEAren Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean egiaztatu dezan ezarritako isuna ordaindu eta ebazpena osoki bete duela hura gauzatzen duenetik hilabeteko epean.

SEIGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritzza honetako Ikerketa Zuzendaritzari eskatzea ebazpen hau osorik betetzen dela zaindu dezan.



Jakinaraz bekio ebazpen hau LEAko Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie interesdun guztiei, eta adierazi behar zaie Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.